



9. KOSTUAK

Gure negozioa aurrera joan dadin, kostuak izango ditugu. Alde batetik, kostu aldakorrak langileen soldatak izango dira, hau da, psikologoaren soldatak. Hauek, geroz eta jarraitzaile gehiago edukita diru gehiago lortuko dutelako. Bestalde, gure aplikazioa diseinatu eta egingo duen pertsona baita ere kostu aldakorren barruan kokatu behar dugu, orduen arabera soldata bat edo beste bat edukiko duelako. Aldiz, kostu finkoen barruan lokalaren alokairua eta wifi sarea erabili ahal izateko kostua kokatzen ditugu, hauek erabili ahal izateko ordaindu beharrezko kantitatea beti berdina izango baita.



Beraz, lehen aipatutakoa kontuan hartuta, gauza bakoitzak hilabetero zer kostatuko litzaigukeen kalkulatu dugu:

KOSTU ALDAKORRAK:

Psikologoaren soldata—> 200€ (gutxi gora behera)

Sarea sortuko duen pertsonaren soldata—> 60.000€ aldera (1.000 eta 120.000€ hartean izaten da)

Elektrizitatea—>40€ aldera

Ura—>10-20€ aldera

KOSTU FINKOAK:

Alokairua—> 500€ aldera hilean

Wifi sarea—>20€

Enpresaren kostuak kalkulatu ondoren, baliabide garestienak aplikazioa sortzea dela ikus dezakegu. Aldiz, jarduera merkeena publizitatea egitea izango da.

Bestalde, aipagarria da gure enpresak ez duela ingurumen edo kostu sozialik sortzen. Alde batetik, ez diogulako ingurumenari kalterik egiten, onlineko zerbitzua delako. Bestetik, hirugarren pertsonen ez diegu kaltetzen, baizik eta laguntzen, horretan datzalako gure enpresa. Beraz, abantaila bat dela esan dezakegu, ez dugulako ingurumena kaltetzen eta gainera, pertsonen onerako delako, hauen osasun mentala hobetzeko.

**KOSTUEN EGITURA**

Beharrezko baliabideak	Kostuak
Aplikazioa	18.000€
Plublizitatea	100€
Abogatuak	50€ kontsulta
Psikologoak	200€

*Datu hauek internetetik atera ditugu (gutxi gora behera langileen soldata)

KOSTU TOTALA: 18.350€ (gutxienez)

Honen arabera erabaki genuen negozioak dirua emateko 10 € hilean ordaindu behar dutela bezeroek.